# INFORMAZIO ORRIA

elizalde HERRI ESKOLA

Zenbakia: 15 Astea: 2018-12-14

***EUSKOTREN TAPOIAK***

Euskotren garraio konpainiak plastikozko tapoiak eta boligrafoak biltzeko kanpaina bat hasi du. Beraien Easoko, Intxaurrondoko eta Irungo geltokietan, kaxa batzuk jarri dituzte. Bertan, tapoiak eta boligrafoak bilduko dituzte. Ateratzen den dirua, gaixotasun neurodegeneratiboen inguruan ikerketa bultzatzeko erabiliko da.

***JOSTAILU AZOKA SOLIDARIOA***

Urtero bezala, abenduaren 22an, eskolako azken egunean, feria egunean, jostailu azoka solidarioa antolatuko dugu. Bertan ateratzen den dirua Etiopiara, Bushulo herrira bidaltzen dugu. Eguneroko bizitzan behar dituzten azpiegiturak hobetzen lagun dezakegu. Hau aurrera eraman ahal izateko, eskolako familien laguntza eskatzen dugu; alde batetik, zuen etxeetan dituzuen jostailuak eskolara ekartzeko, eta bestalde, jostailu azoka antolatzeko. Beraz, etxean dituzuen eta erabiltzen ez dituzuen jostailuak ekarri eskolara, guk hemen jasoko baititugu azoka eguna arte. Antolaketan parte hartu nahi izanez gero, deitu eskolara izena emateko: 943490193. Eskerrik asko. ***MESEDEZ, JOSTAILUAK GELATARA ERAMAN ETA GARBI EGON DAITEZELA.***

***GURASO ELKARTEEK ANTOLATUTAKO FESTA***

KULTURA ANIZTASUNA. Aurten “Makina bat taupada” lelopean Ekainaren 2an Errenterian Euskal Eskola Publikoen festa ospatuko dugu. Ikasturtean zehar ekintza desberdinak egingo dira eta ekintzen helburuetako bat Oarsoaldeko eskola publikoen arteko lotura sendotzea da. Horregatik Oarsoaldeko ikastetxe publiko guztien artean kultura aniztasunaren festa handi bat antolatu nahi dugu Martxoaren 30ean. Horretarako, parte hartu nahi duten familia guztientzat deialdia egin nahi dugu, bai plater tipiko bat prestatzen edo beste ekintza bat antolatu nahi duenarentzat (musika, dantza, jokua, tailerra…).

Parte hartu nahi baduzu, jarri zaitez harremanetan elkartearekin: Telefonoa: 637 841 763. Emailez: koldokide@gmail.com. Izena emateko azken eguna: Abenduaren 17an.

***ALERGIAK***

Gogoratu zuen seme-alabak ez diren ikasleei, ***ezin zaiela janaririk eman***. Ikasleek dituzten alergien ondorioek sor ditzaketen arriskuak ekidin behar baititugu.

***ESKERRAK GURASOEI***

Informazio orriaren bitartez, San Nikolasen parte hartu zuten guraso eta familiako kide guztiak eskertu nahi ditugu, laguntzeko eduki zenuten prestutasunagatik eta jarri zenuten arretagatik. Eskolako ateak beti izango dituzue zabalik.

***ABENDUAK 21***

Abenduak 21an, eskola komunitate ***osoa baserritar jantziarekin etorriko da***, neguko feria ospatuko baitugu. Goizez bakarrik arituko gara eskolan.

***EUSKOTREN TAPONES***

La compañía de transporte Euskotren ha comenzado una campaña para recoger tapones de plástico y bolígrafos. En sus estaciones de Amara Easo, Intxaurrondo e Irún, han colocado unas cajas para poder recoger tanto tapones como bolígrafos. Los beneficios logrados en esta campaña se destinarán a la investigación de enfermedades neurodegenerativas.

***MERCADILLO DE JUGUETES***

Como cada año, el 21 de diciembre organizaremos el mercadillo de juguetes de segunda mano. El dinero que se saca con este iniciativa se envía a Etiopía. Para poder organizarlo todo, necesitamos la ayuda de las familias, por ello os pedimos que traigáis a la escuela los juguetes que tenéis en casa y que no se utilicen. Nosotros/as los recogeremos hasta el último día. Por otro lado, se necesitan personas para la organización de los juguetes recogidos y el mercadillo. Si tenéis la posibilidad de participar en esta actividad llamad a la escuela 943490193. Muchas gracias. ***SE RUEGA QUE LOS JUGUETES ESTEN LIMPIOS Y SE LLEVEN A LAS AULAS.***

***FIESTA ORGANIZADA POR ASOCIACIONES DE PADRES Y MADRES***

DIVERSIDAD CULTURAL

Este curso, bajo la campaña “Makina bat taupada” se celebrará la fiesta de la Escuela Pública Vasca en Rentería el día 2 de junio. Durante el curso se realizarán diferentes actos y uno de los objetivos es el fortalecimiento de los lazos entre las escuelas públicas de Oarsoaldea. Para ello, el día 30 de marzo, se celebrará una fiesta sobre diversidad cultural. Para tal fin, se hace un llamamiento a la participación de las familias con diferentes actividades: platos típicos regionales, música, juegos,… Para participar llamad al número 637 841 763 o enviad un email a koldokide@gmail.com El último día para apuntarse es 17 de diciembre.

***ALERGIAS ALIMENTICIAS***

Recordad que ***no se le puede dar ningún alimento*** al alumnado que no sea vuestro hijo o hija, ya que algunos alumnos/as tienen alergias a ciertos alimentos y debemos prevenir las consecuencias.

***GRACIAS A LAS FAMILIAS***

Nos gustaría agradecer a todas las familias que tomaron parte el 5 de diciembre en la salida de San Nikolas. Las puertas de la escuela estarán siempre abiertas.

***21 DE DICIEMBRE***

El día 21 de diciembre, toda la comunidad escolar vendrá vestido de baserritara, para celebrar la feria de invierno. ***Ese día estaremos de jornada continua, por lo que empezaremos a las 09:00 horas y, el alumnado que come en casa terminará a las 13:00 horas, y el alumnado del comedor a las 15:00 horas***.

***09:00etatik 13:00a arte etxean bazkaltzen dutenen kasuan, eta 15:00ak arte eskolako jantokian bazkaltzen dutenen kasuan. Gogorarazi bestalde, gurasoren batek umea lehenago eramanez gero, tutoreari jakinarazi behar zaiola.*** Goizeko 10:00etatik aurrera eskolako ateak irekiak egongo dira familientzat eta feriari hasiera emango diogu. Musikaz, gaztainez, taloez, txistorraz, animaliez, euskal dantzaz eta beste hainbat ekintzez gozatzeko aukera izango duzue. ***Gogoratu apaintzeko ekartzen dituzuen barazkiak, Elikagai Bankura joango direla behar gehien duten familiei laguntzeko***. Elikagai hauek saskiren batean ekarriz gero, idatzi saskiari izena, gal ez dadin. Familiak gonbidatuta zaudete egunaz gozatzera. Gogoratu, egun honetan taloak prestatzeko guraso bolondresak beharko direla. Izen emateko deitu eskolara edo Guraso Elkartera zuzendu.

***ABENDUAK 24A***

Urtero bezala, abenduaren 24ean, abestera aterako gara Elizalde auzoan zehar, goizeko 11:00etatik aurrera. Inguruko leku ezberdinetan geratu eta gabon kantak abestuko ditugu. Gure ahotsa ongi entzun dadin, ikasleekin batera kantatzera gonbidatzen zaituztegu.

***Honen ondoren, plazan bukatu eta eskolara jaitsita, ohiturari jarraituz, hamaiketakoa egingo dugu eskolako jantokian. Hurbil zaitezte giro pare gabeaz gozatzera.***

***BIZILAGUN BERRIEI ONGI ETORRIA***

Zuetako batzuek jada parte hartu izan duzue 2015etik Oiartzungo bizilagun berriei 3-4 hilero egin izan diegun HARRERA-SAIOAn. Aukera hau baliatu nahi dugu harrera saioetan egingo dugun BERRIKUNTZA NABARMENAren berri emateko eta parte hartzera gonbidatzeko. Gure ustez, Oiartzuna etortzen den herritar berria saio hauetara etortzea bezain garrantzitsua da, bertako herritar eta eragileen presentzia, harrera askoz naturalagoa baita esperientziak lehen pertsonan kontatuta, beste batek kontatuta baino. Orain arteko FORMATUA ALDATUko dugu, askoz egoera ludiko eta erosoagoa eskainiz. ABARAXKA ludotekarekin elkarlanean egingo dugu datorren astean saioa. Asmoa abenduaren 15eko arratsaldean, otordutxo baten inguruan, Oiartzuna etorri berri diren herritarrak eta bertan lehendik bizi garenak elkartzea da. Otordutxoa antolatzeko interesgarria iruditu zaigu hainbat partaidek norberak prestatutako zerbait ekartzea: bertako eta atzerriko platerak dastatzea da ideia. ZUK ere ekarri dezakezu zure espezialitatea! Beraz, hurrengo hitzordua hau da: datorren larunbatean, Abaraxka ludotekan 16:30etan.

***TXERRI EGUNA***

Bihar, abenduak 15, Oiartzunen Txerri Eguna ospatuko dugu. Goizean goiz hasita, Elizalde auzoan, hainbat ekintza ezberdin egongo dira: animalia feria, txistorra jatea, aritsauak, taloak,… eta gure eskolako txozna. DBH4ko ikasleek Madalensoro frontoiaren aurrean jartzen dutena. Honetaz guztiaz gain, Elizalde Dantza Taldeak, gure ikasleek osatzen dutenak, Euskal Herrian plazan hasi eta herriko txoko ezberdinetan dantzak eskainiko dituzte. Bestalde, hau ere, Madalensoro politalekuan, “Makina bat Taupada”ko materiala salgai egongo da, Euskal Eskola Publikoaren aldekoa. Azkenik, eskolako irakasle den Edurne Arregik idatzi eta eta ikasle ohia den Ane Narbartek marrazturiko ipuina salgai edukiko duzue 6 eurotan. “Kataxulotik” izena du eta Ihoteei buruzkoa da.

***Recordad que si alguna madre, padre o tutor/a legal se lleva un alumno/a antes de tiempo debe hacerselo saber a la tutor/a.*** A partir de las 10:00 de la mañana abriremos las puertas de la escuela para las familias y se dará comienzo a las feria. Entre otras muchas cosas, se podrá disfrutar de castañas, euskal dantza, animales, txistorra, música y talos.

***Recordad que los alimentos que se traigan para decorar la feria, se donarán al Banco de Aliementos de Gipuzkoa, para ayudar a las familias más necesitadas.*** Si dicho alimentos se traen en una cesta, lo mejor es ponerles algún distintivo con el nombre del alumno/a, para que no se pierdan. Todas las familias estáis invitadas a disfrutar del día. Finalmente, la Asociación de Madres y Padres necesita voluntarios para hacer talos, para tomar parte poneos en contacto con Dirección o la Asociación.

***24 DE DICIEMBRE***

Como cada año, saldremos a cantar el 24 de diciembre. Nos reuniremos en la escuela a las 11:00. Para que nuestros cantos se oigan a la perfección, invitamos a las familias a participar en esta actividad y cantar junto al alumnado y profesorado.

***Tras lo cual, después de cantar en la plaza bajaremos otra vez a la escuela, a hacer el hamaiketako en el comedor de la escuela. Acercaos y disfrutad.***

***BIENVENIDA A LOS NUEVOS VECINOS/AS***

Algunos de vosotros/as ya habéis participado en los actos de bienvenida que se realizan en el pueblo cada 3-4 meses. Queremos aprovechar estas líneas para informar sobre las novedades de esta actividad. Además de los nuevos vecinos/as, es importante la presencia de gente del pueblo, ya que así, la recepción será mucho más natural y con experiencias de primera mano. Queremos cambiar el formatu para que sea más lúdico y ameno. En la ludoteca Abaraxka, el día 15 de diciembre, por la tarde, nos reuniremos los nuevos vecinos/as y gente del pueblo durante una hora para intercambiar idea e impresiones. Para que la reunión sea más amena, cada uno/a podrá traer comida o alguna especialidad de su país. Así, nos reuniremos el sábado, en Abaraxka a las 16:30 horas de la tarde.

***DÍA DEL CERDO***

Mañana, 15 de diciembre, se celebrará el día del cerdo en Oiartzun. Empezando a la mañana, habrá diferentes actividades en Elizalde: feria de animales, artesanos, comida de txistorra, talos, …y como no la chozna de nuestra escuela, el que pone el alumnado de cuarto de DBH. Además de ello, el grupo de euskal dantza Elizalde, el de nuestro alumnado, comenzará en la plaza Euskal Herria y pasará por diferentes rincones. Por otro lado, también en Madalensoro, se venderá material a favor de la Escuela Pública Vasca. Por último, se venderá el libro “Kataxulotik”. Es un cuento escrito por por nuestra profesora Edurne Arregi, y el grafismo ha quedado en manos de nuestra exalumna Ane Narbarte. Estará a vuestra disposición por 6 euros.

Más información en: www.elizalde.eus y

www.elizaldekogurasoelkartea.blogspot.com.es